

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 261/2019 Erabakia, apirilaren 17koa. Onestea INDESA 2010 SLren Administrazio Kontseilua berritzeko proposamena

Foru Gobernu Kontseiluaren ardura da Arabako Foru Aldundiak erakunde eta instituzio publiko nahiz pribatuetan dituen ordezkariak izendatzea, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzkoak, bere 8. artikuluan, 9. eta 10. idatz zatietan aurreikusikoaren arabera.

Egoki jotzen da Arabako Foru Aldundiak zuzenean edo zeharka parte hartzen duen sozietate publikoetako kudeaketa eta administrazio organoei Administrazio Kontseiluaren eta, hain zuzen, sozietateetako zuzendaritza-kudeatzailetzaren zer kide kendu eta nor izendatu proposatzea.

Nola bi kontseilari kargugabetuko diren uko egiteagatik, Maria Pilar García de Salazar Olano, Diputatu Nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren saileko foru diputatua, eta Cristina González Calvar, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren saileko foru diputatua, berriitu egin behar da Administrazio Kontseilua.

Horregatik, Diputatu nagusiaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. INDESA 2010 SLko kudeaketa eta administrazio organoei proposatzea Eduardo Aguinaco López de Suso Nekazaritza Saileko foru diputatua eta Igone Martínez de Luna Unanue Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua izenda ditzatela INDESA SAREN Administrazio Kontseiluko kide gisa (Foru Administrazioaren partaidetzako Erakundearen Erregistroko 312. hurrenkera zenbakia).

Bigarrena: Erabaki honek onartzen den egunetik bertatik aurrera izango du indarra, ALHAOn argitaratuko den eguna edozein dela ere.

Gasteiz, 2019ko apirilaren 17a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Jarduneko Diputatu Nagusiaren Kabinetearen zuzendaria

ELENA FERREIRA SEBASTIÁN